# Irakurketa klubak: jarraibideak

## Zer da irakurle talde bat?

Irakurle talde bat aurretik adostu dituzten liburuak irakurri eta gero, komentatu eta partekatzeko biltzen diren pertsonen multzoa da, liburu eta irakurketari buruzko interesa eta ezagutza handitzeko aukera ezin hobea eskainiz.

Taldeak koordinatzaile bat du. Irakurketak eta hauen inguruan sortutako ekintzez gain, taldeko kideen parte-hartzeak bideratzeaz arduratuko da. Elkargunea leku publiko bat izaten da, liburutegia orokorrean; liburutegi publikoen barne ez dauden taldeen kasuan, beste lekuren batean egin daiteke.

Irakurle taldeen liburu-sortak liburutegi publikoentzat, institutuentzat, ikastetxe eta irakaskuntzarako zentroentzat, auzokideen elkarteentzat, erakunde publiko zein pribatuentzat, eta bestelako erakunde edo elkarteentzat eskuragarri daude, baldin eta Nafarroako Liburutegi Publikoen Sistemak emandako Irakurle Taldeen txartela badute.

## Txartela nola eskuratu

Zerbitzu hau erabili ahal izateko beharrezko da taldeak Nafarroako Liburutegi Publikoen Sistemak ematen duen Irakurketa kluben karneta izatea. Ezbadu, lehenengo liburu sorta eskatzearekin batera lor daiteke online bidez eskuragai dagoen formularioa betez.

Eskaeran honako datu hauek adierazi beharko dira:

- Irakurketa klubaren izena.
- Zer liburutegiri dagoen lotuta eta bere telefonoa.
- Arduradunak izango direnen izen-abizenak, NAN, telefonoa eta e-maila

Txartelaren datuak eguneratuak mantenduko dira. Aldaketak izatekotan, Irakurketa Kluben Zerbitzuko arduradunei jakinarazi beharko zaizkie.

## Mailegurako baldintzak

Liburu-sortak erabili ahal izateko honako jarraibideak onartu behar dira:

- Liburu-sorten mailegu epea bi hilabetekoa da. Sortak erreserbatu edota berritu ahal izango dira, baldin eta, aurretik beste talde batek egindako erreserbarik ez badute.
- Gehienezko mailegu kopurua txartel bakoitzeko hiru sortakoa izango da.
- Irakurle taldeek hiru hilean edo urtean behin irakurketen egutegia prestatu beharko dute eta Liburutegien Sareko Atalera bidali.
- Liburuak adierazitako epearen barruan itzuli beharko dira.
- Maileguan hartutako liburuen osotasuna ziurtatu beharko da. Erabilera normalari egotzi ezin zaion aleren bat hondatu edo galduz gero, irakurle taldeak, liburutegi eskatzaileak edo taldeko kideak berak berri bat jarri beharko du edo dagokion zenbatekoa ordaindu.
- Mailegu eskaerak gutxienez 15 egun balioduneko aurrerapenarekin egingo dira.
- Liburutegi Zerbitzuak, edo liburutegi igorleak, eskaera behar bezala beteta jaso eta 10 egun balioduneneko epean bidaliko du sorta.
- Sortak itzultzean liburuak ongi paketatuak bidaliko dira, hondatu ez daitezen.
- Epeak eta arauak maiz ez betetzeak liburu sorten mailegua denbora baterako edo behin betiko eteteak ekar dezake.

## Bidalketa eta itzulketa kostuak

Liburutegien Zerbitzuak bere gain hartuko ditu liburu sorten bidalketaren eta itzulketaren gastuak, baldin eta, eskaera Nafarroako liburutegien Sistemaren barruan dauden liburutegien irakurle talde batetik egina bada.

Liburutegi igorlea Nafarroako liburutegi Publikoen Sistemako liburutegia ezden kasuetan, berriz, bidalketa eta itzulketa gastuak liburutegi eskatzaileak ordainduko ditu.

Nafarroako Liburutegi Publikoen Sistemako parte ez diren liburutegi edo erakundeek, bidalketaren eta itzulketaren gastu guztiak bere gain hartu beharko dituzte.

## Liburu sortak nola eskatu

Eskaerak nahi dugun izenburua aukeratu ondoren, agertzen den formularioaren bidez egingo dira: **https://www.culturanavarra.es/eu/irakurketa-klubak-1**

## kontsultak eta harremanak

clubesdelectura@navarra.es
Tlfno. 8484 42 89 82